

# BALIO PROPOSAMENA

*Igela* auzoko enpresa bat da, hau da; enpresa txikia eta bezeroei kalitatezko produktuak eta konfiantza eskaintzea ditu helburu nagusi. Bezeroa da, garrantzi guztia duena erosketan, eta honen ondorioz haien eskuetan dago zerbitzua edota produktua. Stockaz aparte bezeroak aukera du bere produktuak diseinatzeko edota neurrira jartzeko.

Ehungintzaren merkatuan zerbait berri eman behar diezu erosleei, bestela, haiek aukera merkeena eta kalitate txarreko izango dute helburu nagusi, sistema neokapitalista liberal honetaz indartuta. Hau jakinda, bezeroei gure enpresa, produktu edo zerbitzuak aukeratzearen arrazoi bat eman behar diogu, beste lehiakideengandik bereizten gaituena; haiek dituzten aukera guztietatik “Igela”-ra joateko.

Beraz, gure balioa kaulitatiboa izatea erabaki dugu nagusiki, kuantitatiboa (dirua) izanda ezin izango genioke lehia egin enpresa industrialei. Bai diseinuan bai kalitatean nabaria izan daiteke gure marka, haiek gure indargunea izango zen; kalitatea eskuz egindako produktuetan hobeagoak direlako eta diseinuaren aldetik, eskaintzen ditugun aukerak ugariak direlako.

Horrekin bat, lehiakideengandik bereiz gaitezke honakoen bitartez:

- Pertsonalizazioa, produktuak bezeroen esku daude, hau da; haiek erabakiko dute haiek nola nahi duten eta neurrira izango dira.
- Eskuragarritasuna, lehen aipatu bezala auzoko enpresa bat izatea etxe ondoan egotea esan nahi du, nahi duzun guztietan hara jaisteko.
- Etika, eskaintzen dugun zerbitzua edo produktua morala izango zen, hemen eginda: pertsonen eskubideak suntsitu gabe eta gainera ehunak berrerabilita izango ziren, jendea ekarrita edota enpresen soberakinekin.
- Berritasuna, inon aurki ditzakete guk eskaintzen ditugun zerbitzuen batura.

